

Ordizian, 2014ko maiatzaren 8an UDALBATZARRAK Ohiko bilkura egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

BERTARATUTAKOAK:

LEHENDAKARIA:

Igor Eguren Izagirre jn.

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Belén Maiza Urrestarazu	BILDU taldea
Izaro Intsausti Zinkunegi	BILDU taldea
Juan M ^a .Guereñu Aldasoro	BILDU taldea
Iban Asenjo Garde	BILDU taldea
Edurne Gutierrez Jauregui	BILDU taldea
Imanol Iturrioz Lauzirika	BILDU taldea
Jose Miguel Santamaría Ezeiza	EAJ taldea
Judith Otegi López de Murillas	EAJ taldea
Arantzazu Garin Garmendia	EAJ taldea
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ taldea
Bittor Iñaki Bolinaza Alzelai	EAJ taldea
Iñaki Dubreuil Churruca	PSE-EE(PSOE) taldea

BERTAN IZAN EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

IDAZKARIA:

Martin Iparragirre Mujika jn.

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aranburu Otegi jn.

ITZULTZAILEA:

Izaskun Zubitur Iñarra and.



BESTE BERTARATZE ETA IRTEERAK

AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:

- 1.- 2014 ko apirilaren 3an Udalbatzarrak egindako Osoko Bilkurako akta onartzea.
- 2.- 2014ko apirilaren 28an UDALBATZARRAK egindako aparteko bilkura
- 3.- Ordiziako EAJ eta PSE alderdiek aurkeztutako mozioa "SASIETAKO ZABORTEGIA" izenburua duena.
- 4.- Bake Epailaren kargurako izendapena.
- 5.- Osoko bilkuran adierazteko finantza- eta aurrekontu-informazioa.
- 6.- Alkatetza Dekretu bidez onartutako kreditu aldaketen kontu ematea
- 7.- Oiangualde-30 hirigintzako esku-hartze eremuaren Hitzarmen Batzordean, Ordiziako Udaleko ordezkari bezala, Igor Eguren Izagirre jaunaren izendapena berrestea
- 8.- N-1 (Ordiziako hegoaldeko lotunea) eta GI-4491 errepideak lotzeko Aguirrebidea hobetzeko 1. Proiektu aldatua eta kontratua exekutatzeko lursailak kudeatzeko kontratua eta abar onartzea

PRESAZKO IZAERAZ SARTUTAKO GAIAK:

GALDE-ERREGUETAN AZTERTUTAKO GAIAK:

GORABEHERAK

ORDUTEGIA:

HASIERA: 19:00 etan

AMAIERA: 19:30etan



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

1.- 2014 ko apirilaren 3an Udalbatzarrak egindako Osoko Bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2014 ko apirilaren 3an Udalbatzarrak egindako Osoko Bilkurako akta onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:ez dira izan.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 12 (BILDU 7, EAJ 4, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 1(EAJ 1,J.I.Iturrioz, bileran ez zelako egon)

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

2.- 2014ko apirilak 28an udalbatzarrak egindako aparteko bilkura

Proposamena

2014 ko apirilaren 28an Udalbatzarrak egindako Osoko Bilkurako akta onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:ez dira izan.



Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 9 (BILDU 4, EAJ 4, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 4 (BILDU 3, J.M.Gereñu, E.Gutierrez eta I.Iturrioz, EAJ 1 J.I.Iturrioz, bilera izan ez zirelako)

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

3.-Ordiziako EAJ eta PSE alderdiek aurkeztutako mozioa "SASJETAKO ZABORTEGIA" izenburua duena.

Proposamena

SASJETAKO ZABORTEGIA

Sasietako zabortegia, hizpide dugu azkenaldian, bere itxiera data déla eta dirudienez, Sasietako Mankomunitate edo Beasaingo Udaletxean hartu ordez, Bilduk, Foru Aldundian edo auskalo non hartu dituen erabakíak medio.

Gogoratu Sasietako zabortegia 80. Hamarkadan ireki zela Goierri osoko hiri hondakínak jaso ahal izateko.

Zabaldu zenetik ordea, Debagoieneko hondakinak jaso zituen eta handik gutxira, baita Tolosaldekoak ere.

San Markoko zabortegiaren itxiera ez zen posible izango, Lurraldeko Mankomunitate uztien, Donostiako Udalaren eta Foru Aldundiaren arteko akordiorik izan ez balitz. Akordio horri esker sortu zen GHK bera ere, zabortegi guztiak isteko helburuarekin.

San Markoko zabortegia itxi ahal izateko, bertara zihoan zabor kopuru handibat, 2008tik gaur arte Sasietara desbideratu zen beti ere Zubietako azpiegiturak martxan jarri bitartean. Plan hura gauzatzeko epea, PIGRUGek aurreikusitakoa, Foruarau xedapersarekin eta beraz Sasietako zabortegiaren itxiera ezartzen zuena, 2014koa da.

Orainastebatzuk, Foru Aldundiak bere Plan berria azaldu zuen, bere epeekin eta zabortegiei dagokionean, bata bestearen atzetik istea aurreikusten dituen: Urteta (Zarautz) 2014ko abendurako, Lapatx (Azpeitia)



2015eko ekainerako eta Sasieta (Beasain) 2015 bukaerarako. Itxiera hauek eta "Gipuzkoa Garbia" kanpañaren barruan, nahi hainbesteko propaganda izan dute komunikabideetan.

Sasieta dagokionean, guztiaren berri, komunikabideei esker izan dugu, bertako Gobernu batzordeetatik, Udaletako ordezkariari inongo informaziorik ez baitzaigu eman, (are gutxiago Udal honetako Gobernuan dagoen BÜduren partetik ere).

Nork hartu ditu gure bailaran dagozkien erabakiak, bertako batzordeetatik pasatu ere ez badira egin?

Zabortegeien itxieraren ordenari dagokionean, deigarria da lehendabizi itxi behar direnak Zarautz eta Azpeitikoak jzatea, ingurugiro zuzendaria eta diputatua bertakoak direnean.

Plan horrek bi ondorio izango ditu nagusiki.

Batetik, oraindik proiektuen erredakzioarekin hasi ere egin ez denean, 2015 erako ezinezkoa izango dela azpiegitura horiek martxan jartzea.

Bestetik, Urteta eta Lapatz itxiko balira gainontzeko azpiegiturak egiteke egonik, Bilduk erabaki du Gipuzkoa osoko zaborrak Sasieta jasotzea, hórrela Sasieta Gipuzkoako zabortegei bihurtuaz.

Guzti honegatik, Udal honetako EAJ-PNVko eta PSE/PSOeko zinegotzi taldeek, erabaki hauek hartu ditezten eskatzen du:

- 1.-Sasieta Mankomunitateak hartutako erabakia berrestea Sasieta itxierari dagokionean.
- 2.- Zabortegeiak eraman beharreko azpiegiturak martxan egon arte, hiru zabortegeiak irekita mantentzea.
- 3.- Sasieta mankomunitatea osatzen dugun herrietako Udalei akordio honen berri ematea, Udal honetako Osoko Bilkuretan akordio hauek berretsi ditzaten.
- 4.- Akordio hauek, Sasieta Mankomunitatea, GHK eta Foru Aldundiko ingurugiro sailera helaraztea.
- 5.- Mozio honen idatzi eta akordioak, anuntzio gisa, lurralde eta bailarako komunikabideetan argitaratzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Santamaria jn.

Adierazi du Urteta (Zarautz) 2014ko abendurako, Lapatz (Azpeitia) 2015eko ekainerako eta Sasieta (Beasain) 2015 bukaerarako itxiko direla, eta Sasieta dagokionean, guztiaren berri prentsaren bitartez izan dutela, eta Sasieta azkena itxiko denez, honek bere ustez bi ondorio hauek izango dituela:

- Oraindik proiektuen erredakzioarekin hasi ere egin ez denean, 2015erako ezinezkoa izango dela azpiegitura horiek martxan jartzea.



- Sasieta zabortegia bihurtuko dela Gipuzkoa osorako zabortegia.

Horregatik, azpimarratu du mozioaren bitartez, batez ere, bi erabaki hauek hartzea eskatzen dela:

- 1.- Sasieta Mankomunitateak hartutako erabakia berrestea Sasietaren itxierari dagokionean.
- 2.- Zabortegiak eraman beharreko azpiegiturak martxan egon arte, hiru zabortegiak irekita mantentzea.

Asenjo jn.

Adierazi du zoriondu egin nahi dituela ordiziarak, zabor bilketarako dagoen arautegia ondo betetzen ari direlako, baita zoriondu nahi duela Gipuzkoako Foru Aldundia eta Sasietako zuzendaritza (politiko eta teknikoak), zeren eta Sasieta da Euskal Herri osoan birziklatze tasa altuena lortzen duen eskualdea Sakanarekin batera; prest gaude oposizioarekin gai honi buruz hitz egiteko, eztabaida publikoa izateko nahi diren foroetan, eta gogorazi du honelako aukerak izan direnean oposizioa ez dela agertu. Jarraitu du esanez Gipuzkoa erreferente bat dela gai honetan, eta Europa mailan izan diren hainbat forotan Gipuzkoako Foru Aldundia gonbidatua izan dela egiten den kudeaketaren berri emateko. Gipuzkoa izango da bakarra 2015. urtean zabortegi toxiko guztiak itxita izango dituen, Bizkaian errausketa badago eta gainera zabortegi toxikoak daude; aldiz Gipuzkoan apustu bikoitza egiten da: errausketa eta zabortegi toxikorik ez.

Santamaria jn.

Zabortegiak 2015. urtean itxiko direla esaten denean, galdetzen du ea behar diren azpiegiturak ere eginda izango diren data horretarako.

Asenjo jn.

Erantzun dio baietz.

Santamaria jn.

Asenjo jaunari galdetu dio ea badakien non kokatuko diren azpiegiturak.

Asenjo jn.

Eztabaida publiko batera enplazatu ditu, Santamaria jauna, EAJ eta PSE alderdiak. Oihartzun mediatikoa nahi baduzue Udalean lanik egin gabe, edozeinen aurrean eta lekuan gai honi buruz eztabaidatzeko prest gaude.

Santamaria jn.

Adierazi du Asenjo jaunak zoriondu duela Gipuzkoako Foru Aldundia gauzak ondo egiten ari delako, baina hori ez dela horrela, "PTS" enkargatuta dago, baina oraindik kokapenak erabaki gabe, proiektuak ere egin gabe daude, beraz ezinezkoa izango da 2015erako azpiegituren bat aurrera eramatea, zeren eta guztiok



dakigu honelako proiektu bat jorratzeak zenbat denbora eramaten duen; urte eta erdi geratzen denez 2015 urtearen amaierarako, ezinezkoa da 2015. urte bukaerako inongo azpiegiturarik prestatuta egotea, eta hori horrela izanda Sasieta Gipuzkoako zabortegei bihurtuko da.

Asenjo jn.

Berresten du gai honi buruz eztabaida publikoa egiteko eskaintza, berresten du Gipuzkoako Foru Aldundia seriotasun osoz lanean ari dela, eta EAJ oztupo guztiak jarriko dituela plangintza aurrera ez eramateko, baina seriotasun osoz lanean jarraituko dute eta helburua da 2015eko bukaerarako Gipuzkoako zabortegeiak ixtea, EAJ alderdiak 30 urtez Bizkaian lortu ez duena.

Santamaria jn.

Ez du merezi esandako dena berriro errepikatzea, zeren eta garbi dago ezin izango direla bete Asenjo jaunak esaten dituen epeak.

Dubreuil jn.

Hainbeste zorientzeak jendea pozten duela adierazi du, 2011ko maiatzean ere askotan zoriondu eta goretsi zituztela ordiziarrak 5. edukiontzia lortu zutelako eta familia askok izen eman zuelako eta Gipuzkoako Foru Aldundia ere zoriondu zen "PIGRUG" onartu zuelako, eta zuek iritsi zineten eta guztia "deskojonatu" zenuten. Gertaera zehatz bat dago hemen, eta hori da Sasieta Gipuzkoako zabortegei bihurtuko dela azkeneko zabortegea itxi eta 2015eko abendura arte. Inerteen zabortegeiak ere toxikoak direla adierazi du. Prentsaren bidez jakin omen du Sasieta ixtea aurreikusten dutela, gure ordezkarietako inork ez dio honi buruzko ezer jakinarazi, pentsatzen du aurreikuspen hori egiten dutela azpiegiturek egun horretarako prest egongo direlako, baina berak zalantza ugari ditu, ez du uste data horretarako azpiegitura guztiak bukatuko dituztenik; eta bukatu du esanez berak ezin duela inor zoriondu lehen egindako guztia pikutara bota dutelako.

Asenjo jn.

Dubreuil jaunari eskerrak eman dizkio egindako ekarpenengatik, nahiz eta ekarpen horiek ez partekatu. Gezur batek, gezur izaten jarraitzen duela mila aldiz errepikatuta ere, hori esan du. Dubreuil jaunari gogorarazi nahi izan dio, Europako hauteskundeetarako kanpainarean, hilaren 24an, alderdi garrantzitsuenen programak ezagutarazteko ekologista taldeek antolatutako debate batean, hondakinen kudeaketaz hitz egin zutela, beste gai batzuen artean, eta debate honi buruz prentsan atera ziren izenburuek zioten IU-EQUO, PSOE errausketaren aurka azaldu zirela, eta horren aurka berriz, PPK ordezkariak esan omen zuen ezin dela historiaurrera itzuli eta errausketa ezin dela saihestu.

Dubreuil jn.

Esan du ez duela debate horren berri izan, gaur egun aurrerakoiagoa dela hondakinak baliabide gisa erabiltzea eta ez zabor gisa, eta esan dio ez joateko Europaraino, hemen gertuago geratzeko, eta Azpeitiko kasua gogorarazi dio. Jarraitu du esanez oso erabaki konplexua dela, eta plan bateratu,



finantzatu eta egituratu bat lortu zutenean beraiek etorri zirela eta dena pikutara bota zutela, inongo plan alternatiborik izan gabe, eta hortaz, ez dakiela nola amaituko duen zaborren gaiak Gipuzkoa bezalako lurralde txiki batean.

Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 6(, EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 7 (BILDU 7)

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena ez onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

4.- Bake Epaillearen kargurako izendapena

Proposamena

Jakinarazten da gaur egungo Bake Epailleak (titularra eta ordezkoa) izendatu zireneko lau urteko epea amaitu dela eta EAeko Auzitegi Nagusiaren errekerimenduz Bake Epaille berria eta haren ordezkoa izendatzeko prozedura hasi dela.

Horrekin batera, jakinarazten da aipatutako karguak betetzeko eskaerak aurkezteko epea ireki zela, 62 zenbakiko 2014ko apirilaren 1eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako ediktuen bitartez. Eskaera bakarra aurkeztu zen.

Bake Epailen Araudian (1995eko ekainaren 7koa) eta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101 artikuluan eta ondorengoetan zehazten denaren arabera eta Administrazio Delegazioaren eta 2014ko apirilaren 30eko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, ondorengo akordioa proposatzen da:

AKORDIO PROPOSAMENA

1.- JOSE MANUEL OTEGI DORRONSORO Jauna izendatzea Bake Epaille titularren kargurako, eta ordezkoko Epaillearen kargua bete gabe uztea.



2.- Akordioaren kopia EAEko Auzitegi Nagusira bidaltzea izendapen honen ondorioetarako.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Alkate jn.

Adierazi du interesatu bakarra apuntatu dela, gaur egungo Bake Epailea hain zuzen ere.

Santamaria jn.

Adierazi du aipamen txiki bat egin nahi lukeela, Juanito Iztuetaz oroituta dela puntu honetan eta berak zuen irrika Bake Epailaren figura indartzeko eta kontuan izateko, ez garelako konturatzen Bake Epaila izateak duen garrantziaz.

Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0)

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

5.-Osoko Bilkuran adierazteko finantza-eta aurrekontu informazioa.

21/2003 Foru Arauak ezartzen du, gutxienez hiru hilean behin Alkateak Osoko Bilkuran finantzen eta aurrekontuen inguruko informazioa emango duela.

Aurretik 2006-03-30ko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordeko irizpenaren bidez eta ondoren 2006-03-30ko Udaleko Osoko Bilkuraren bidez onartu zen hiru hiletik behin ondorengo informazioa ematea:



- Funtzioen balantzea.
- Diru-sarrereren Aurrekontu Exekuzioa.
- Aurrekontu krediturik gabe burututako gastuak
- Udal Diruzaintzaren egoera

2014-04-30eko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordean aztertu ondoren, Osoko Bilkurara bideratzen da 2014-04-28ko informazioa.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Kontuhartzaile jn.

Adierazi du 21/2003 Foru Arauak ezartzen duela gutxienez hiru hilean behin Alkateak Osoko Bilkuran finantzen eta aurrekontuen inguruko informazioa ematea. Jarraitu du esanez deialdiarekin batera honako dokumentazio hau banatu dela:

- Funtzioen balantzea.
- Diru-sarrereren Aurrekontu Exekuzioa.
- Aurrekontu krediturik gabe burututako gastuak.
- Udal diruzaintzaren egoera.
-

Azkenik, gogorarazi du banatutako dokumentazioari buruzko informazioa eman zuela 2014ko apirilaren 30eko Plenoko Gai Batzordeko bileran.

Jakinaren gainean.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

6.- Alkatetza Dekretu bidez onartutako kreditu aldaketen kontu ematea

Gipuzkoako Toki Erakundeetako aurrekontuen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 27.3 artikulua araber, Osoko Bilkuran Aurrekontuen aldaketen berri eman behar da.

Apirileko 3an kontu emandako Dekretuak alde batera utzita, ondorengoak hauek dira:

Kredituen transferentziak		
Zenbakia	Dekretu zenbakia	Zenbatekoa
Kreditu gehigarriak		
Zenbakia	Dekretu zenbakia	Zenbatekoa
4	287	14.330,00
5	338	728,14



Kreditu eransketak		
Zenbakia	Dekretu zenbakia	Zenbatekoa
Kredituen gaikuntza		
Zenbakia	Dekretu zenbakia	Zenbatekoa
3	286	19.670,00

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Kontuhartzaile jn.

Adierazi du Gipuzkoako Toki Erakundeetako aurrekontuen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 27.3 artikulua arabera, Osoko Bilkuran Aurrekontuen aldaketan berri eman behar dela, eta deialdiarekin batera banatu diren Dekretuei buruzko azalpena eman zuela 2014ko apirilaren 30eko Plenoko Gai Batzordeko bileran.

Jakinaren gainean.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

7.- Oiangualde-30 hirigintzako esku-hartze eremuaren Hitzarmen Batzordean, Ordiziako Udaleko ordezkari bezala, Igor Eguren Izagirre jaunaren izendapena berrestea.

2014/373. DEKRETUA

HONAKO HAU IKUSITA:

- 2014ko martxoaren 28an, Alkatezaren 317 Dekretu bidez Oiangualde 30 H.I.Eko Hitzarmen Batzordearen eraketa onartu zen, 2013ko uztailaren 5eko eskrituran jasota geratzen den bezala.
- Lurzoruaren 2/2006 Legearen 162.1 artikuluan zehaztutakoa betez, espedientearen kopia bidali zen Gipuzkoako Foru Aldundiko Hirigintza arloko Elkarleen Erroldan inskribatzeko.
- Aipaturiko Legeko 162.2 artikulua xedatzen duenaren arabera Ordiziako Udalaren ordezkaria izendatu behar da Batzorde horretan.



HONAKO HAU ERABAKI DUT:

1.- Oiangualde-30. hirigintzako esku-hartze eremuaren Hitzarmen Batzordean, Ordiziako Udaleko ordezkari bezala, IGOR EGUREN IZAGIRRE jauna izendatzea.

2.- Dekretu hau berresteko, kontu ematea Udal honek egiten duen hurrengo Udal Osoko Bilkuran

Igor Eguren Izagirre Alkateak agindu eta sinatu du, Ordizian, 2014ko apirilaren 24an; hori guztia, nik, Ordiziako idazkariak, ziurtatu dut.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez dira izan.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du .

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0)

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

8.- N-1 (Ordiziako hegoaldeko lotunea) eta GI-4491 errepideak lotzeko Agirrebidea hobetzeko 1. Proiektu aldatua eta kontratua exekutatzeko lursailak kudeatzeko kontratua eta abar onartzea.

Proposamena

IKUSITA.

Lehena.- 2013ko abenduaren 13ko Foru Aginduaren bidez Mugikortasun eta Bide Azpiegituretako Diputatuak "N-1 (ORDIZIAKO HEGOALDEKO LOTURA) ETA GI-4491 (1-CL-6/2011-M1) LOTZEKO



AGIRREBIDEA HOBETZEKO ALDATUTAKO 1. zbakiko PROIEKTUA"ko OBRAK EGITEKO ETA FINANTZATZEKO GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA ORDIZIAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA onartzea ebatzi zuen eta Ordiziako Udalarari 534.000,00 euroko diru-laguntza ematea N-1 (Ordizia Hegoaldeko lotura) eta GI-4491 arteko konexioa hobetzeko.

Bigarrena.- Lankidetzaz hitzarmenari erantsen zitzaioala "N-1 (ORDIZIAKO HEGOALDEKO LOTURA) ETA GI-4491 (1-CL-6/2011-M1) LOTZEKO AGIRREBIDEA HOBETZEKO ALDATUTAKO 1. zbakiko PROIEKTUA", Sestra Ingeniería y Arquitecturak idatzia, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak osoki finantzatua.

Hirugarrena.- 2013ko abenduaren 18ko osoko bilkuran Ordiziako Udalak aipatutako hitzarmena sinatzeko akordioa onartu zuen, eta horren bitartez Ordiziako Udalak bigarren atalean proiektua lizitatzeko betebeharra bere gain hartzen du eta proiektua burutzeko lursailen erabilgarritasuna lortzeko konpromisoa.

Laugarrena.- Proiektua burutzeko interesdun jabeekin harremanetan jarri ondoren, ikusi da bertako 16. planoko eremuaren partzela-planoa ez dela errealitatez egokitzen eta horregatik aurreikusitako bide berriaren trazadurak ukitutako partzelak zehazten dituen beste plano bat egin behar izan da.

Bosgarrena.- ADIFen jabetzako 113,37 m²ko azalerako lursail ukituak desjabetza bidez lortuko dira ADIFek berak hala eskatuta, eta obrak hasterako terenoak okupatu ahal izango dira, aipatutako desjabetza gauzatu aurretik.

Seigarrena.- Proiektuaren baitan interesdunak diren gainerako jabeen eta Ordiziako Udalaren artean akordioa dagoela, eta beraz, ez da desjabetze espedienterik hasteko beharrik ikusten, eta ondorengo onartzea proposatzen da:

AKORDIORAKO PROPOSAMENA:

Lehena.- Sestra Ingeniería y Arquitecturak idatzitako "N-1 (ORDIZIAKO HEGOALDEKO LOTURA) ETA GI-4491 (1-CL-6/2011-M1) LOTZEKO AGIRREBIDEA HOBETZEKO ALDATUTAKO 1. zbakiko PROIEKTUA" onartzea, 16 zenbakiko planoaren aldaketarekin idatzitako aktan jasotzen den moduan eta 20 eguneko epean jendaurrean argitaratzea Gipuzkoako aldizkari Ofizialeko iragarki bidez, iragarki-taula bidez eta zabalpen handieneko egunkari bidez, eta horrekin batera interesdunei eta aldamenekoei banakako jakinarazpena bidaltzea. Jendaurrean zabaltzeko epean ez bada erreklamaziorik aurkezten, proiektua behin betiko izaerarekin onartuko da.

Bigarrena.- Zehaztutako proiektua burutzeko lursailen erabilgarritasuna lortzeko kontratua onartzea.

Hirugarrena.- Alkate jaunari eskumena ematea proiektuari dagozkion agiri publiko nahiz pribatuak sinatzeko.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida



Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Alkate jn.

Adierazi du jabeekin izandako elkarrizketen eta lortutako akordioaren ondorioa dela ekartzen den dokumentazioa, eta atzoko Gai Arrunten Informazio Batzordearen aurretik Udal arkitektoa den Juanma Saez jaunak azalpen luze eta zabala egin zuela, guzti honen nondik nora argitzeko. Bukatu du esanez nahi izan dela ahalik eta lasterren Udal Osoko Bilkura ekartzea gaur onartzen diren erabakiak jendaurrean jarri, ondoren lehenbailehen esleipen prozedura martxan jarri ahal izateko.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du .

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0)

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

9.- Galde-erreguak

Ez dira izan.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, behin behineko Idazkariak egiaztatzen dut.